



**LEGAZPIKO  
UDALA**

## **PRAKTIKETARAKO ARAUDIA** **LEGAZPIKO UDALA**

### **I. TITULUA**

Titulu honek Legazpiko Udaleko departamentu desberdinetan egingo diren praktikak arautuko ditu.

#### **Lehenengoa.**

Legazpiko udaletxean praktikak egin ahal izateko, ezinbesteko baldintza izango da Udalaren eta ikaslea datorren hezkuntza-zentroaren artean lankidetzaz hitzarmena sinatuta izatea. Aipatu lankidetzaz hitzarmen horretan praktika aldia zein baldintzatan burutuko den jasoko da: hasiera noiz izango den, noiz bukatuko den, ordutegia, ikastetxean harremanetarako izendatutako pertsona zein den, ikastetxeak ikasleari ordainketarik egin edo diru-laguntzarik emango dion.

Lanpostu berarentzako praktikak egiteko eskaera bat baino gehiago egonez gero eta guztiei erantzun ezin bazaie, lehentasuna izango dute Legazpin erroldatuta dauden ikasleek.

#### **Bigarrena.**

Ikastetxeek Legazpiko udaletxeko Pertsonaleko departamentuan aurkeztu beharko dituzte euren eskaerak. Departamentu horrek, ikaslearen prestakuntza-ezaugarrien arabera, dagokion departamentuko teknikari arduradunari bidaliko dio eskaera eta hura izango da, azken batean, aurkeztu den eskaera onartzea edo ez onartzea erabakiko duena, beti ere Kontu-hartze sailaren fiskalizazioa jaso eta gero.

Dena den, Pertsonaleko departamentuari jakinaraziko zaio hartutako erabakia eta hura izango da Kontu-hartze sailari erabakiaren berri emango diona. Modu berean, Korporazioko kideak eta sindikatuetako ordezkariak informatuko ditu Pertsonal batzordearen bilera batean.

#### **Hirugarrena.**

Legazpiko Udalak praktikak egiteko beharrezkoak izango diren baliabideak eta instalazioen erabilera bermatuko du.

Praktikak burutuko diren departamentuko pertsona arduraduna izango da (edo bere ordezkari izendatutako duena) praktikak ikuskatu dituen, ikasleak egingo dituen lanak antolatuko dituen eta ikastetxearekin harremanetan egongo dena. Horretarako, nahitaezkoa izango da ikastetxeak tutorea edo harremanetarako pertsona izendatzea.



**LEGAZPIKO  
UDALA**

Praktika aldian edozein gorabehera gertatuz gero, ezinbestean emango zaio horren berri Pertsonaleko departamentuari.

### **Laugarrena.**

Ikasleek ez dute, inondik ere ez, Legazpiko Udalarekin loturarik edo lan-harremanik izango. Zentzu horretan, lantokian eta bertara egindako joan-etorrietan gorabeheraren edo istripuren bat gertatuz gero, dagokion eskola-asegurua izango da horren kargu egingo dena.

Bestetik, ikastetxeak erantzukizun zibilaren poliza bat hitzartu dezake, praktikaldian ikasleak sor ditzakeen kalteei aurre egin ahal izateko.

Halere, Legazpiko Udalak lanean segurtasuna eta higienezaren arloan aplikagarria den legeria beteko dela zainduko du.

### **Bosgarrena.**

Araudi honetan jasotako prozedura jarraituz praktikak egingo dituzten ikasleek hileko 200,00 € jasoko dituzte Legazpiko Udaletik, beteko duten lanaldia egun erdikoa edo gehiagokoa denean. Lanaldia murriztagoa izanez gero, ordainketa hori proportzionalki kalkulatu da.

Lanaldi erdia edo gehiago betetzen dela ulertuko da lantokian 3 ordu eta 40 minutu edo gehiago betetzen direnean.

### **Seigarrena.**

Praktiketako ordutegiak praktika horien ezaugarrien eta departamentu bakoitzaren baliabideen arabera ezarriko dira.

Ikasleak dagokion departamentuko arduradunaren eta ikastetxeak izendatuko duen tutorearen kontrola eta ikuskapena jasoko du bere praktika aldian eta, une oro, Legazpiko Udalaren funtzionamendu-arauak bete beharko ditu.

### **Zazpigarrena.**

Praktikak egingo dituzten ikasleek isilean gorde beharko dute praktika aldian beteko duten lanean ezagut dezaketen informazio oro.



**LEGAZPIKO  
UDALA**

## **II. TITULUA**

Euskadiko Erkidego Autonomoan 419/1994 Dekretuak, azaroaren 2koa, batetik Haur eta Gazteen Aisialdirako Hezitzaileak Trebatzeko Eskolak eta, bestetik, Haur eta Gazteen Aisialdi jardueretarako Begirale eta Zuzendariak trebatzeko ikastaroak izendapen ofizialez onartzeko eta bertan parte hartzeko modua arautzen du. Dekretu horretan ezarritakoaren arabera, begirale eta zuzendari titulua lortzeko praktikak Titulu honetan jasotakoaren arabera arautuko dira Legazpiko udaletxean.

### **Zortzigarrena.**

Legazpiko udaletxean praktikak egin ahal izateko, Aisialdiko begirale titulua lortzeko ikastaro bat egin beharra dago horretarako baimena duen Haur eta Gazteen aisialdirako hezitzaileak trebatzeko Eskola batean. Ikastaro hori bi zatitan bereizten da: alde teorikoa (200 ordu) eta alde praktikoa (120 ordu)

### **Bederatzigarrena.**

Legazpiko Udalak, urtero, Euskara departamentuaren bitartez, haurren uda ikastaroa antolatzen du uztailean, 2 eta 9 urte bitarteko herriko haurrentzat, goizeko 9:00etatik 13:00etara eta aukera eskainiko die gazte legazpiarrei euren praktika aldia uda ikastaro horretan egiteko.

Uda ikastaroan gazteek gehienez 100 ordu sartuko dituzte. Beraz, eskatutako 120 ordu osatzeko gazteek ekintza osagarriak egin beharko dituzte eskatzen diren 120 orduak osatzeko. Horrela, beste gauzen artean, praktiketako begiraleek herriko haurrentzako jolasak prestatu eta eskainiko dituzte Udalak antolatzen duen *Uztaila kultural*ean bi edo hiru arratsaldetan.

### **Hamargarrena.**

Udalak uda ikastaroan osatuko diren talde-kopuru adina begirale onartuko ditu praktikak egiteko, baldin eta begirale gisa hartu dituen pertsonak aisialdiko begirale titulua badute. Praktikak egiteko eskaera-kopurua osatutako talde-kopurua baino handiagoa bada, Udalak zozketaren bidez aukeratuko ditu praktikak egiteko onartuko dituen begiraleak.

### **Hamaikagarrena.**

Praktikak egiteko jasoko diren eskaerak ondoko lehentasun-irizpideen arabera onartuko dira:

- Herrian edo eskualdean antolatu diren ikastaroetako ikasleak
- Gipuzkoan antolatutako ikastaroetako ikasleak
- Euskadiko Autonomia Erkidegoan antolatutako ikastaroetako ikasleak



**LEGAZPIKO  
UDALA**

Horrezaz gain, hizkuntza ere aintzat hartuko da eta lehentasuna izango dute alde teorikoa euskaraz egin duten ikasleek.

### **Hamabigarrena.**

Praktikak egiteko eskaerak maiatzean aurkeztu ahal izango dira Legazpiko udaletxeko harrera-bulegoan, goizeko 8:00etatik 15:00etara. Horretarako, udaletxean eta eskuratu ahal izango duten 'Eskaera orokorra' izeneko inprimakia beteko da eta alde teorikoa egin duela egiaztatuko duen eskolako agiria erantsiko da, honakoak adieraziz: alde teorikoaren ordu-kopurua, non egin duen eta zein hizkuntzan.

### **Hamahirugarrena.**

Horrezaz gain, praktikak egingo dituztenek ikastaroa prestatzeko aldez aurretik egin beharreko lanetan hartuko dute parte. Horrela, ekainean egingo den 4/5 orduko prestakuntza-saioan eta ondorengo egunetan programa osatzeko bileretan hartu beharko dute parte. Modu berean, gurasoekin egingo diren bileretara ere joan beharko dute.

### **Hamalauugarrena.**

Aisialdiko eskolaren kontura joango da Legazpiko Udalak antolatutako uda ikastaroan praktikak egingo dituzten ikasleen trebaketa-aldi praktikoaren ikuskaritza eta 419/1994 Dekretuaren arabera, trebaketa-aldi praktikoa bukatutakoan, eskolako praktiken ikuskatzaileak ikaslea ebaluatuko du idatziz, Gai edo Ez Gai kalifikazioa proposatuz.

### **Hamabosgarrena.**

Gazteek istripu-asegurua izan beharko dute uda ikastaroak dirauen bitartean eta aseguru hori Udalaren kontura joango da.



**LEGAZPIKO  
UDALA**

## **REGLAMENTO DE PRACTICAS** **AYUNTAMIENTO DE LEGAZPI.**

### **TITULO I**

El presente título regulará las prácticas que se realicen en los diferentes Departamentos del Ayuntamiento de Legazpi.

#### **Primero.**

Para realizar prácticas en el Ayuntamiento de Legazpi, será requisito indispensable que previamente el Ayuntamiento y la entidad educativa de la que provenga el alumno o la alumna hayan firmado un convenio de colaboración. En el convenio deberán recogerse las condiciones en las que se desarrollará el periodo de prácticas (fecha de inicio y finalización, horario, remuneración por parte del centro educativo o subvención, en su caso y persona de contacto del centro educativo).

En caso de que exista más de una solicitud de realización de prácticas para un mismo puesto y no se pueda atender a todas, se dará prioridad a los y las alumnas empadronados/as en Legazpi.

#### **Segundo.**

Los centros educativos deberán presentar sus solicitudes en el Departamento de Personal del Ayuntamiento de Legazpi. El referido departamento, en función del perfil formativo del/a alumno/a, le remitirá la solicitud al Técnico/a responsable del Departamento que corresponda que será quien, en última instancia, tomará la decisión de aceptar o no la solicitud presentada, previa fiscalización del Departamento de Intervención.

En todo caso, la decisión será notificada al Departamento de Personal que informará al Departamento de Intervención, así como, a los miembros de la Corporación y a los representantes sindicales a través de la Comisión de Personal.

#### **Tercero.**

El Ayuntamiento de Legazpi, garantizará la utilización de sus instalaciones y recursos necesarios para la realización de las prácticas.

La persona responsable del Departamento donde se vayan a desarrollar las prácticas (o persona en quien delegue) será la encargada de supervisarlas, de organizar la actividad del/a estudiante y de mantener el correspondiente contacto con el Centro Educativo. Para ello, será necesario que el centro educativo nombre un tutor o persona de contacto.



**LEGAZPIKO  
UDALA**

El Departamento de Personal, deberá ser informado de cualquier eventualidad que pudiera suceder durante el periodo de prácticas.

#### **Cuarto.**

Los/as alumnos/as no tendrán, en ningún caso, vinculación o relación laboral con el Ayuntamiento de Legazpi. En ese sentido, cualquier eventualidad o accidente que pudiera producirse en el centro de trabajo o desplazamientos al mismo deberá ser cubierto por el Seguro Escolar correspondiente.

Por otra parte, el centro docente deberá concertar una póliza de responsabilidad civil para cubrir los daños que el/la alumno/a pueda ocasionar por la realización de las prácticas.

No obstante, el Ayuntamiento de Legazpi velará por el cumplimiento de la legislación aplicable en materia de seguridad e higiene en el trabajo.

#### **Quinto.**

Los/as alumnos/as que realicen las prácticas siguiendo el procedimiento recogido en el presente reglamento, recibirán por parte del Ayuntamiento de Legazpi una indemnización de 200€ mensuales cuando realicen su labor a media jornada o superior. Si la jornada fuera inferior, la retribución se calculará de forma proporcional.

Se entenderá por media jornada o superior la que suponga una presencia efectiva diaria de 3h y 40min o más.

#### **Sexto.**

Los horarios de las prácticas se establecerán de acuerdo con las características de las mismas y de las disponibilidades de cada Departamento.

El alumnado desarrollará las prácticas bajo el control y supervisión del/a responsable del Departamento correspondiente y del tutor/a designado por el centro educativo y se someterá en todo momento a las normas de funcionamiento del Ayuntamiento de Legazpi.

#### **Séptimo.**

Los/as alumno/as en prácticas, deberán guardar sigilo sobre cuantas informaciones pueda conocer en relación a la actividad desarrollada durante el periodo de prácticas.



**LEGAZPIKO  
UDALA**

## **TITULO II**

El DECRETO 419/1994, de 2 de noviembre, regula el reconocimiento oficial de Escuelas de Formación de Educadores/as en el Tiempo Libre Infantil y Juvenil y de los Cursos de Formación de Monitores/as y Directores/as de Actividades Educativas en el Tiempo Libre Infantil y Juvenil, así como el acceso a los mismos. Según lo establecido en referido Decreto, las solicitudes para realizar prácticas para la obtención del título de monitor y director de tiempo libre en el ayuntamiento de Legazpi se regirán por lo recogido en el presente Título.

### **Octavo.**

Para realizar prácticas en el ayuntamiento de Legazpi será necesario realizar el curso para la obtención del título de monitor de tiempo libre en una escuela con la correspondiente licencia para la formación de educadores/as en el tiempo libre infantil y juvenil. El curso se diferencia en dos partes: parte teórica (200 horas) y parte práctica (120 horas.)

### **Noveno.**

El ayuntamiento de Legazpi, todos los años a través de la comisión de Euskera organiza en julio un curso infantil de verano para los niños/as de 2 a 9 años, de 9:00 a 13:00 y ofrecerá a los/las jóvenes legazpiarras la posibilidad de realizar las prácticas en el mencionado curso infantil de verano.

Los/las jóvenes en prácticas realizarán en dicho curso un total de 100 horas. Por tanto, deberán realizar horas complementarias para completar las 120 horas reglamentarias. En ese sentido, deberán, entre otros, preparar y ofrecer juegos infantiles dentro de las actividades culturales de julio que organiza también el ayuntamiento.

### **Décimo.**

El ayuntamiento admitirá tantos monitores en prácticas como grupos se formen en el curso de verano, siempre que los monitores de dichos grupos sean poseedores del correspondiente título de monitor de tiempo libre. Si el número de solicitudes para realizar las prácticas es mayor que el número de grupos que se formen, el ayuntamiento realizará un sorteo entre los monitores que hayan presentado la solicitud.

### **Undécimo.**

Las solicitudes para realizar las prácticas serán admitidas atendiendo a los siguientes criterios de prioridad:



**LEGAZPIKO  
UDALA**

- Alumnos/as de los cursos organizados en el municipio o comarca
- Alumnos/as de los cursos organizados en Gipuzkoa
- Alumnos/as de los cursos organizados en la Comunidad Autónoma Vasca

Además, también se tendrá en cuenta el idioma y tendrán preferencia aquellos/as que hayan realizado la parte teórica en euskera.

### **Decimosegundo**

Las solicitudes para realizar las prácticas se presentarán en mayo en la oficina de atención al ciudadano del ayuntamiento, de 8:00 a 15:00 horas. Para ello, se cumplimentará el impreso “*Solicitud general*”. Junto con el impreso se presentará un certificado de la escuela de tiempo libre que justifique la realización de la parte teórica correspondiente especificando: número de horas teóricas, dónde se ha realizado la parte teórica y en qué idioma.

### **Decimotercero**

Los/las alumnos/as en prácticas realizarán todos los trabajos previos para preparar el curso infantil. Así, en junio realizarán un curso de formación de 4/5 horas y tomarán parte en las reuniones para elaborar el programa. Asimismo, tomarán parte en las reuniones informativas dirigidas a los padres/madres.

### **Decimocuarto.**

Será por cuenta de la escuela de tiempo libre, la supervisión del periodo de prácticas que realicen los/las alumnos en el curso infantil organizado por el ayuntamiento y en función del Decreto 419/1994, el/la supervisor/a de prácticas de la escuela, evaluará por escrito al alumno/a proponiendo la calificación de Apto/a o No Apto/a.

### **Decimoquinto.**

Los/las jóvenes deberán contar con un seguro de accidentes durante el curso y ese seguro será por cuenta del Ayuntamiento.